


## Matthias Weiss doktorea Mondragon Unibertsitatean hasiko da lanean

2013/07/24

Matthias Weiss doktorea, Australiako Deakin University unibertsitatekoa, Mekanika eta Ekoizpen Industrialeko departamentuan hasiko da lanean Ikerbasque Fundazioari esker eta Materialak Eraldatzeko Prozesu Aurreratuetan lan egiten duen taldearekin lan egingo du txapa konformatzeko prozesu berritzaileak garatzeko.

Bere egonaldian, materialen karakterizazioa eta karakterizazio tribologikoen saiakuntza aurreratuak egingo dira, aipagarrienak: trakzio saiakuntza biaxiala, trakzio-kompresio saiakuntza ziklikoak eta *Strip Drawing Test* saiakuntzak dira.

Lortutako legeak perfilazio prozesuak hobetzeko, estanpazio hotzeko prozesuak eta erresistentzia ultra altua duten altzairuetan aplikatuko dira.



Matthias Weiss Dr. Jauna